



Gobernu Kontseiluaren
akordioa, Euskal Autonomia
Erkidegoko Administrazio
Orokor eta Instituzionalean
eKontratazio Proiektuaren
Gida Plana ezartzea
onartzen duena

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
Ogasun eta Administrazio Saila

Gasteiz, 2007. urteko Martxoan

Kontratazio publiko elektronikoa  Contratación pública electrónica

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Edukia

	Or.
Gobernu Kontseiluaren akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eKontratazio Proiektuaren Gida Plana ezartzea onartzen duena	3
Azalpena	3
Akordioa	5
1. Sarrera	9
2. Kontratazio elektronikoa hartzeko bultzada eman beharra Enpresen aldetik	12
3. Hedapena eta bereganatzea prestatu beharra Eusko Jaurlaritzako Sailen aldetik	13
4. Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa	18
5. Kontratisten Erregistro Ofizialak eskaini beharreko laguntza	19
6. Prestakuntza Kontratazio Elektronikoan	20
7. Digitalki igorritako eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea Bermatzeko prozedura	21
8. Eusko Jaurlaritzako Sailak Kontratazio Publiko Elektronikoan sartzeko eskakizunak	22
9. Eusko Jaurlaritzaren kontratazio espedientei buruzko datuen ustiapen estatistikoa, Kontratazio Publiko Elektronikoaren ezarpenari jarraipena egiteko adierazleak garatzeko helburuz	25
10. Kontratazio elektronikoaren aplikazioen bilakaera teknologikoari eman beharreko bultzada	26
11. Erakunde-arteko Lankidetzeta eta kontratazio elektronikoa beste Administrazio batzuetara transferitzeko aukera	29
12. Kontratazio Publiko Elektronikoaren bilakaera Normatibo eta Legezkoa	30
13. Konpromiso egutegien laburpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eKontratazio Proiektuaren Gida Plana ezartzeko Gobernu Kontseiluak onartutako akordioaren ondorioz hartutakoa	31

Gobernu Kontseiluaren akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eKontratazio Proiektuaren Gida Plana ezartzea onartzen duena

Azalpena

Euskadi Informazioaren Gizartean izeneko Plan (EIP) barruan, besteak beste, Kontratazio Elektronikorako bidea irekitzen zuen "Administrazioa On Line" lan ildoak zegoen, hain justu ere, «Gobernuaren hornikuntza prozesuak arindu eta kontratazio espedienteetarako sarbidea errazteko helburuaz», kontratazio elektronikoa dagozkion jarduerak abiarazten zirenean.

Ondorengo fase handinahiago batean, 2004ko apirilaren 7an, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak eKontratazio proiektuaren oinarritzko ildoak onartu zituen eta, ondorioz, proiektu hori ezartzeko Gida Planaren ildo nagusiak ezarri zituen, besteak beste, elementu hauek adieraziz:

- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak Akordio proposamen bat zuzendu beharko dio Gobernu Batzordeari. Xedea da proposamen horren bidez, eta ildo estrategikoei jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren eKontratazio Proiektua ezartzeko Gida Plana onartzea.
- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren bidez, Akordio hau garatzeko eta betetzeko neurri egokiak hartuko ditu.

Ondoren, 2004ko abuztuaren 16ko 4673. Agindua, "Herri Administrazioetako kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura eta jardura jakin batzuen izapidetze telematikoen" gainekoa, kontuan hartuta, besteak beste, honako kontzeptu hauek arautu ziren:

- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak 2003ko maiatzaren 13ko Ebazpenean araututako Erregistro Telematikoen esparrua administrazioaren kontratazioari dagozkion jardueretara hedatzea, eskaintza elektronikoa onartuko duten prozedurak hastea ahalbidetuz, eta administrazioaren kontratazio prozedura jakin batzuetan jakinarazpen elektronikoa sustatuz.
- Hirugarrenek (batez ere eskaintzaileek) egin beharreko izapide telematikoei lotutako hainbat aspektu; baita Administrazioak izapideok hartzeko moduari eta horiei buruz egingo diren kontsultei buruzko aspektuak ere.

Era berean, aipatutako Aginduan, Eusko Jaurlaritzan Kontratazio Elektronikoen sistema erabiltzeko eremua zehaztu zen, honen arabera:

- Adierazitako prozedurak eta aplikazioak (Kontratazio Publiko Elektronikoen) Ogasun eta Herri Administrazio Sailak erabiliko ditu, eta baita horri atxikitako HAEE-Herri Arduraritzaren Euskal Erakundea eta EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea administrazio erakunde autonomoek ere.
- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gainerako Sailek ere erabili ahal izango dute, eta baita horien erakunde autonomoek eta euren borondatez erabili nahi duten zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere, Sail interesdunen eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren agindu bateratuaren bitartez.
- Eskaintza elektronikoa egiteko prozedura kontratazio organoak horretarako baimena eman duen espedienteetan erabili ahal izango da eta klausula administratibo partikularren pleguak hala aurreikusten duenean.

- Eskaintza elektronikoa erabiltzeko aukera aldatu egin ahal izango da honakoetan: une bakoitzean operatibo dagoen eskaintza elektronikoaren aplikazio euskarriaren ezaugarri tekniko eta funtzionala zein den; kontratazio mahaien antolaketa egoera zein den, eta gizartean sinadura elektronikoko teknikak noraino erabiltzen diren eta, bereziki, kontratazio prozedurari hirugarrenek sinatutako agirien ekarpena egiteko aukerak zeintzuk diren.

Denboran bat eginik, eta 2004ko martxoaren 31 datarekin, Europar Batasunak kontratazio administratiboari buruzko 18/2004/CE zuzentaraua eman zuen ezagutzera. Zuzentarau horrek adierazten du derrigorrezkoa dela Europako Erkidegoko araudia aldatzea 2006ko otsailaren 1etik aurrera eta gomendatzen du estatu kideek kontratazio elektronikoa ezartzea, gehien jota, 2007. urtearen hondarrerako.

Nabarmentzeko modukoa da Gobernuaren jarrera proaktiboa dela-eta, eta azken lau urteotan gai hau bultzatzeko egindako ahalegina dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoa izatea Estatu osoan Kontratazio Elektronikoa martxan jarri zuen lehena, eta lehenengo eskaintza elektronikoari lotutako helburua eta datak honakoak izan ziren:

- 2005eko urriaren 10a, C02/046/2005 "Euskal Autonomia Erkidegoan Kontratazio Publiko Elektronikoaren sistema ezartzeko laguntza teknikoa" Espedientean eskaintzak aurkezteko epemuga, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Batzorde Zentraletik eta 1.203.365 euroko zenbatekoarekin. Espediente hori tarteko, 2 enpresa aurkeztu ziren eskaintza elektronikoaren aplikazioa erabiltza.
- 2005eko urriaren 19a, eskaintzen irekiera ekitaldi publikoa Kontratazio Batzorde Zentralean.

Hala, Eusko Jaurlaritzak aparteko garrantzia duen jauzi kualitatiboa egin zuen. Izan ere, Euskal Enpresetan onura handia ekarriko duen erlazio bide batekin esperimentatzeko eta trebatzeko aukera sortu zen, etorkizunean Herri Administrazio osoak bere egingo duen erlazio bide batekin.

Halako mugari esanguratsua borobiltzeko, derrigorrezkoa gertatu zen e-Kontratazio Proiektua ezartzeko Gida Planaren Xehetasun Diseinuari ekitea, honelako elementuak aletzeko:

- Eusko Jaurlaritzako Sailen eta Enpresa Hornitzaileen artean kontratazio elektronikoa hedatzeko estrategiarako kontzeptuak..
- Kontratazio espedienteek bete beharreko erreferentziako irizpideak, elektronikoki eskaintzeko modukoak izan ez daitezten.
- Irizpide horien geroko bilakaerari buruzko aurreikuspenak.
- Eusko Jaurlaritzako Sailak kontratazio elektronikoan sartzea, kontratazio tipologiaren arabera.
- Etorkizuneko Erabiltzaileentzako Arreta zentroaren egitura eta Zentro horrek eskaini beharreko zerbitzuak.
- Prestakuntza Programaren edukia.
- Eusko Jaurlaritzako hornitzaileen aurrean egin beharreko jarduerak, bai marketinari dagokionez eta baita kontratazio elektronikoaren hedapenari dagokionez ere.
- Zerbitzua Emateko Kalitate konpromisoaren norainokoa.

Eusko Jaurlaritzaren kontratazio elektronikoaren sistema, bada, proiektu progresibo gisan definitzen da, zeren eta asmoa sisteman sartuz joatea baita, presa barik baina etengabe, kontratatzen duen gero eta elementu gehiago bereganatuz, Kontratazio Batzorde Zentraletik, Gobernuko Sailetatik eta Erakunde Autonomo eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetatik hasita. Ildo horretan, kontratazio elektronikoaren giltzarrietako bat Sailek erabaki sendoz bereganatzea dela jakinik, Eusko Jaurlaritza egituratze maila altu baten atzetik dabil, eta horretarako dago Ezarpenerako Gida Plana.

Horrekin bat eta kontratazio administratiboan bitarteko telematikoen, informatikoen eta elektronikoen ezarpen aski eta hedatua lortze aldera, eta Eusko Jaurlaritzak Europar Erkidegoaren kontratazio administratiboari buruzko 18/2004/CE zuzentaraua betetzeko proiektuari eman nahi dion jarrera proaktiboaren ondorioz, eta baita Administrazioaren eta Gobernuaren Plan Estrategikoa hedatzeko mesedegarria eta garrantzizkoa delako ere, Gobernu Kontseiluak, hausnarketa egin ondoren, ahalik eta laguntzarik handiena eskatzen die Kontratazio Organo guztiei, bete dadin honako

Akordioa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eKontratazio Proiektua ezartzeko Gida Plana onartzea, Akordio honekin batera doan agiri erantsiarekin bat eginez, non 2006-2008 aldirako jarduera plan espezifiko bat zehazten den.
2. Eskaintza Elektronikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Sailek onartzea, eta bere egitea, Eskaintza Elektronikoa, zehaztutako esparruen, faseen eta abiarazte zerrendaren arabera; eta onartzea baita ere Eusko Jaurlaritzako Sailak kontratazio elektronikoa sartzeko eskakizunak ere, Akordio honi erantsirik doan agiriko 3. eta 8. puntuetan azaltzen den moduan, kontuan hartuta eskakizunok Zerbitzuak Lehenesteko Metodologian (ZLM) ezarritako printzipioetan oinarrituta garatu direla, Eusko Jaurlaritzaren Digitalizatzeko Eskuliburuaren barruan, Administrazioa Modernizatzeko Bulegoan garatuta, Plangintza eta Ekonomia Galetarako Ordezko Batzordearen akordioz 2006ko uztailaren 13an onartuta.
3. Kontratazio Elektronikoaren gaineko prestakuntzari dagokionez, kontratazio elektronikorako aurreikusten diren mekanismo digitaletako asko berriak izango direnez bai Enpresa eskaintzaileentzat eta bai Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren inguruko prozesuan esku hartzen duten Funtzionario eta Agintarientzat, Eskaintza Elektronikoa hartzeko 1. Faserako (Abian) aurreikusten den egutegiari jarraiki, zera egingo da:
 - Enpresentzako prestakuntza martxan jarri.
 - Kontratazio prozesuan esku hartzen duten Eusko Jaurlaritzako langile guztientzako prestakuntza martxan jarri.
4. Enpresek kontratazio elektronikoa bereganatzeko bultzadari dagokionez, Marketing eta Hedapen jarduera espezifikoak garatuko dira, Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistraturik dauden enpresa guztiei zuzenduta.
5. Administrazioen eta kontratazio organoen arteko harreman elektronikoa errazteko, Eskaintza Elektronikoa hartzeko 1. Faseatik (Abian) sei hilabetera gehien jota, Eusko Jaurlaritzako Sailek, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoek eta Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Erakunde Pribatuak erabat operatiboa izango den eta beharrezko zereginak automatizatuko dituen kontratazio espedienteen kudeatzaile bat izango dute.
6. e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoari dagokionez –Administrazio eta Gobernu Plan Estrategiko elektronikoen bidez garatzen dena–, kontratazio elektronikoen sistema osatzen duten aplikazio guztiek, eta bereziki kontratazio espedienteen kudeatzaileak, e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoaren honako zerbitzuak erabiltzea bermatuko dute:

- o Sinadura eta Egiatzatze Zerbitzua. Bitarteko elektronikoan, informatikoan eta telematikoen bidez izapidetutako kontratazio espedienteek sinadura elektronikoa aitortua eramango dute, jarduera administratiboak eta interesdunen jarduerak benetakoak direla eta osorik daudela bermatzeko.
- o Kontsulta Zerbitzua. Zerbitzu honek aukera emango die interesdunei prozeduren egoerari buruzko informazioa jasotzeko, bitarteko telematikoen bidez izapidetuak izan ala ez, eta aukera emango du, halaber, prozedurok osatzen dituzten agiri elektronikoetan sartzeko.
- o Jakinarazpen sistema horizontala eta Jakinarazpenen Zubia. Kontratazio espediente guztiek jakinarazpena bitarteko telematikoen bidez egiteko aukera emango dute, 30/1992 Legearen 59. artikulua aurreikusten dituen bermeekin.
- o Erregistro Telematikoa. Erregistro Telematikoa eskaerak, idatziak eta kontratazio elektronikoa osatzen duten aplikazioetatik datozen komunikazioak jaso eta bidaltzeko erabili beharko da.
- o Ordainketa Sistema horizontala. Sail eta Erakunde Autonomo guztiek, esleipendunen iragarki eta publizitate kostuak telematikoki ordaintzea ahalbidetu beharko dute, Eusko Jaurlaritzaren "Pasarela de Pago -Nire ordainketak" delakoaren bitartez, Administrazioaren eta Gobernuaren Plan Estrategiko elektronikoaren testuinguruan garatua dagoena.

Eskaintza Elektronikoa onartzen duten espediente guztietan, araudiak debekurik jartzen ez badu, eskaintzaileak libre geratuko dira behin behineko bermea aurkeztetik. Behin behineko bermea aurkeztea derrigorrezkoa den kasuetan, ordea, 12 hilabeteko epean, bermeen aurkezpen telematikoa aurkezteko aukera izango da, Eusko Jaurlaritzaren "Pasarela de Pago -Nire Ordainketak" delakoaren bidez.

Atal honetan azaldutakoa ulertu beharra dago Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Zerbitzuak Digitalizatzeko Planak dioena alde batera utzita, eta kontuan hartu gabe, halaber, plan horretan edo bestelako tresna batzuetan berori erabili beharraz zehatz daitekeena, goian aipatutakoak ez baina eAdministrazioarako Plataformaren beste zerbitzu eta interfazei dagokienez.

7. 2007. urtean zehar, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialaren eguneratze teknologikoari ekin behar zaio, halako moldez non interesdunek espedienteak telematikoki izapidetu ahal izango dituzten.
8. Administrazio Elektroniko eta Hiritarrentzako Arreta Zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu kontratazio elektronikoaren sistema erabiltzen dutenei laguntzeko eta horretarako bitartekoak martxan jartzeko. Hori Zuzenean Zerbitzuaren bitartez egingo da (012).
9. Eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea Ziurtatzeko Prozedura martxan jarriko da, horren beharra daukaten espedienteentzat, Akordio honi erantsirik doan agiriaren 7. puntuan azaltzen den legez.
10. Interneten kontratazio espedientei buruzko publizitatea jartzei dagokionez, eskaintzaileek Administrazioaren kontratazio eskaeretara sartzea samurrago izan dezaten, Modernizazio eta Administrazio Elektronikoaren Idazkaritza Orokorra eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak elkarrekin lan egingo dute. Hala, Euskadiko Autonomia Erkidegoak Interneten agertzeko duen eredia landuko da eta e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoaren aurrerapen teknologikoek horretarako bide ematen dutenean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, beronen Erakunde Autonomoen eta Osakidetza zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren informazioarako sarbide bateratua martxan jarriko da.

Zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoek eta Sozietate Publikoek, nahi izanez gero, Interneten agertzeko eredu horretara atxiki ahal izango dira zehazten den arauzko moduan, eta euren kontratazio espedienteen publikitatea aipatutako sarbide bateratuaren bitartez eskaini.

11. Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoaren Idazkaritza Orokorrak, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren lankidetzaz, Foru eta Tokiko Administrazioarekiko lankidetzaz sustatuko du Kontratazio Publiko Elektronikoaren esparruan eta, horretarako, lankidetzaz tresna egonkorak ezarriko ditu hala eskatzen duten foru eta tokiko administrazioekin, behar besteko ordezkagarritasuna izango duten kontratazio elektronikoko ezarpenak garatzeko; eta horien esku utziko ditu eskaintza elektronikoko aplikazioak eta Kontratisten Erregistro Ofizialean sartzeko aplikazioak.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza lankidetzaz arituko da, kontratazio elektronikoen sistemarentzat dauzkan giza baliabide eta baliabide teknikoak baliatuz, kontratazio elektronikoa bere egitea nahi duten Euskadiko Autonomia Erkidegoko Foru eta Tokiko Administrazioekin, metodologia, prestakuntza eta aplikazio euskarriak eskainiz, behar besteko ordezkagarritasuna duten ezarpenei laguntza emateko.

12. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzari eta Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoaren Idazkaritzari zera agindu: euren eskumen esparruaren barruan, beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko, hemen adostutako helburu eta neurriak bete daitezien.
13. Akordio honen jarraipena eta betetze mailaren ebaluazioa, beraz, Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Plana (AGEP) ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozesuan integratuko da, izan ere, e-Kontratazio proiektua horren barruan dago.

Horretarako, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari agintzen zaio sei hilabetez behin Administrazioa Modernizatzeko Bulegoko Zuzendaritzari helburuen betetze mailaren gaineko informazioa emateko; eta baita Akordio honen gainerako ataletan azaldutakoaren betetze mailaz informazioa emateko ere.

Gobernu Kontseilura zuzentzeko

Gasteizen, 2007ko Martxoaren 6an

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN





ERANSKINA

Euskal Autonomia
Erkidegoko Administrazio
Orokor eta Instituzionalean
eKontratazio Proiektuaren
Gida Plana ezartzea
onartzen duen Gobernu
Kontseiluaren Akordioari
dagokiona.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza
Ogasun eta Administrazio Saila

Gasteiz, 2007. urteko Martxoa

Kontratazio publiko elektronikoa  Contratación pública electrónica

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



1. Sarrera

Euskadi Informazioaren Gizartean izeneko Plan (EIP) barruan, besteak beste, Kontratazio Elektronikorako bidea irekitzen zuen "Administrazioa On Line" lan ildoak zegoen, hain justu ere, «Gobernuaren hornikuntza prozesuak arindu eta kontratazio espedienteetarako sarbidea errazteko helburuaz», kontratazio elektronikoari dagozkion jarduerak abiarazten zirenean.

Ondorengo fase handinahiago batean, 2004ko apirilaren 7an, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak eKontratazio proiektuaren oinarritzko ildoak onartu zituen eta, ondorioz, proiektu hori ezartzeko Gida Planaren ildo nagusiak ezarri zituen, besteak beste, elementu hauek adieraziz:

- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak Akordio proposamen bat zuzendu beharko dio Gobernu Batzordeari. Xedea da proposamen horren bidez, eta ildo estrategikoei jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren eKontratazio Proiektua ezartzeko Gida Plana onartzea.
- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren bidez, Akordio hau garatzeko eta betetzeko neurri egokiak hartuko ditu.

Ondoren, 2004ko abuztuaren 16ko 4673. Agindua, "Herri Administrazioen kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura eta jarduera jakin batzuen izapidetze telematikoaren" gainekoa, kontuan hartuta, besteak beste, honako kontzeptu hauek arautu ziren:

- Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak 2003ko maiatzaren 13ko Ebazpenean araututako Erregistro Telematikoaren esparrua administrazioaren kontratazioari dagozkion jardueretara hedatzea, eskaintza elektronikoa onartuko duten prozedurak hastea ahalbidetuz, eta administrazioaren kontratazio prozedura jakin batzuetan jakinarazpen elektronikoa sustatuz.
- Hirugarrenek (batez ere eskaintzaileek) egin beharreko izapide telematikoei lotutako hainbat aspektu; baita Administrazioak izapideok hartzeko moduari eta horiei buruz egingo diren kontsultei buruzko aspektuak ere.
- Kontratazio elektronikoko Erregistro telematikoari dagokionez, berori konfiguratzeko da erakunde jardulearen Erregistro Orokorren erregistro lagungarri gisan, aurreikusitako baldintza guztiak beteko direla bermatuz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan azaltzen den bezala. Beraz, idatziak aurkeztea onartzen da urte osoko egun guztietako 24 orduetan. Horiek hala, erregistro ez telematikoaren aldean, gehiago dira gaur egun ditugun aukerak.

Era berean, aipatutako Aginduan, Eusko Jaurlaritzan Kontratazio Elektronikoko sistema erabiltzeko eremua zehaztu zen, honen arabera:

- Adierazitako prozedurak eta aplikazioak (Kontratazio Publiko Elektronikoa) Ogasun eta Herri Administrazio Sailak erabiliko ditu, eta baita horri atxikitako HAEE-Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea eta EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea administrazio erakunde autonomoek ere.
- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gainerako Sailek ere erabili ahal izango dute, eta baita horien erakunde autonomoek eta euren borondatez erabili nahi duten zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere, Sail interesdunaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren agindu bateratuaren bitartez.
- Eskaintza elektronikoa egiteko prozedura kontratazio organoak horretarako baimena eman duen espedienteetan erabili ahal izango da eta klausula administratibo partikularren pleguak hala aurreikusten duenean.
- Eskaintza elektronikoa erabiltzeko aukera aldatu egin ahal izango da honakoetan: une bakoitzean operatibo dagoen eskaintza elektronikoa aplikazio euskarriaren ezaugarri tekniko eta funtzionala zein den; kontratazio mahaien antolaketa egoera zein den, eta gizartean sinadura elektronikoko teknikak noraino erabiltzen diren eta, bereziki, kontratazio prozedurari hirugarrenek sinatutako agirien ekarpena egiteko aukerak zeintzuk diren.

Denboran bat eginik, eta 2004ko martxoaren 31 datarekin, Europar Batasunak kontratazio administratiboari buruzko 18/2004/CE zuzentaraua eman zuen ezagutzera. Zuzentarau horrek adierazten du derrigorrezkoa dela Europako Erkidegoko araudia aldatzea 2006ko otsailaren 1etik aurrera eta gomendatzen du estatu kideek kontratazio elektronikoa ezartzea, gehien jota, 2007. urtearen hondarrerako.

Nabarmentzeko modukoa da Gobernuaren jarrera proaktiboa dela-eta, eta azken lau urteotan gai hau bultzatzeko egindako ahalegina dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoa izatea Estatu osoan Kontratazio Elektronikoa martxan jarri zuen lehena, eta lehenengo eskaintza elektronikoa lotutako helburua eta datak honakoak izan ziren:

- 2005eko urriaren 10a, C02/046/2005 *“Euskal Autonomia Erkidegoan Kontratazio Publiko Elektronikoa sistema ezartzeko laguntza teknikoa”* Espediente eskaintzak aurkezteko epemuga, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Batzorde Zentraletik eta 1.203.365 euroko zenbatekoarekin. Espediente hori tarteko, 2 enpresa aurkeztu ziren eskaintza elektronikoa aplikazioa erabiltza.
- 2005eko urriaren 19a, eskaintzen irekiera ekitaldi publikoa Kontratazio Batzorde Zentralean.

Era berean, kontratatze elementuen bolumena eta tipologia kontuan hartuta, esanguratsuak dira baita ere bigarren eskaintza elektronikoa lotutako datak eta helburua:

- 2005eko abenduaren 20a, Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Kontratazio Batzorde Zentralaren C06-14-2005 Espedientea dela-eta eskaintzak aurkezteko epemuga *“Euskadiko Autonomia Erkidegoak, aseguruaren hartzailerik gisa, hainbat arrisku ordainduko dituzten aseguru pribatuaren kontratuak kontratatze”*, 45.000.000 euroko zenbatekoarekin. Espediente horretara Enpresa bat aurkeztu zen eskaintza elektronikoa aplikazioa erabiliz.
- 2006ko urtarrilaren 3a, C06-14-2005 Espediente eskaintzen irekiera publikoa.

Hala, Eusko Jaurlaritzak aparteko garrantzia duen jauzi kualitatiboa egin zuen. Izan ere, Euskal Enpresetan onura handia ekarriko duen erlazio bide batekin esperimentatzeko eta trebatzeko aukera sortu zen, etorkizunean Herri Administrazio osoak bere egingo duen erlazio bide batekin.

Halako mugari esanguratsua borobiltzeko, derrigorrezkoa gertatu zen e-Kontratazio Proiektua ezartzeko Gida Planaren Xehetasun Diseinuari ekitea, honelako elementuak aletzeko:

- Eusko Jaurlaritzako Sailen eta Enpresa Hornitzaileen artean kontratazio elektronikoa hedatzeko estrategiarako kontzeptuak.
- Kontratazio espedienteek bete beharreko erreferentziako irizpideak, elektronikoki eskaintzeko modukoak izan ez daitezzen.
- Irizpide horien geroko bilakaerari buruzko aurreikuspenak.
- Eusko Jaurlaritzako Sailak kontratazio elektronikoan sartzea, kontratazio tipologiaren arabera.
- Etorkizuneko Erabiltzaileentzako Arreta zentroaren egitura eta Zentro horrek eskaini beharreko zerbitzuak.
- Prestakuntza Programaren edukia.
- Eusko Jaurlaritzako hornitzaileen aurrean egin beharreko jarduerak, bai marketingari dagokionez eta baita kontratazio elektronikoaren hedapenari dagokionez ere.
- Zerbitzua Emateko Kalitate konpromisoaren norainokoa.



2. Kontratazio elektronikoa hartzeko bultzada eman beharra Enpresen aldetik

Eusko Jaurlaritzaren arabera, kontratazio elektronikoa hainbat onura lortzeko estrategia da, bai Euskal Administrazioarentzat, bai Funtzionarioentzat eta baita Enpresentzat eta Euskal Gizarte osoarentzat.

Gai honetan bereziki nazioartean gauzatu diren jarduera onenen azterketan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak uste du kontratazio elektronikoak honako onura hauek ekarriko dizkiela Enpresa eskaintzaileei:

- Errendimendu/kostu balio handiko negozio bide bat sortzea, sarbide bakar, erraz eta eroso baten bitartez.
- Enpresa txiki eta ertainen sarbiderako hesiak minimizatzea.
- Kontratazio ziklo osoa ikusteko eta digitalki tratatzeko aukera.
- Modu osagarrian, eskaintza elektronikoa ezartzeak honako onurak ekarriko dizkie Enpresei:
 - Denbora gehiago izatea eskaintzak prestatu eta orrazteko.
 - Prozesatzeko denbora murriztea.
 - Hutsegiteak murriztu daitezke.
 - Lehiakideei jarraipena egiteko gaitasun handiagoa.
 - Posta kostuak txikitzea.
 - Baldintza klimatiko desegokiek, garraio zailtasunek, mezularitza enpresetako lan gatazkek eta abarrek entregetan eragindako zailtasun logistikoak gutxitzea.
 - Deskuiduak, ahazteak, atzerapenak eta... azken orduko ezustekoak gutxitzea.
- Eta eskuragarri jarriko ditu e-Administrazioaren barruan interes handiko ezagutza eta trebetasunak garatzeko aukera emango duten hainbat prestakuntza jarduera eta elementu.

Eusko Jaurlaritzaren ikuspegitik onura horiek bistakoak direla badirudi ere, aipatzekoa da Informazioaren Gizartea, osotasunean hartuta, poliki-poliki aurrera egiten ari dela; hori dela eta, gero eta behar handiagoa dago ahalegin bereziak egiteko, ahalegin horiekin behar besteko sentiberatasuna piztuko baita gizartean eta enpresetan, erabilera eta aplikazio berrien eskaera bultzatu eta atariko tutoretza eta hedapen mekanismo argiak antolatuzko.

Hala, pentsabide horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzak uste du beharrezkoa dela gaur egun Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratuta dauden 3136 enpresek bereganatzea kontratazio elektronikoa, zeren eta kontratazio elektronikoa ezartzea Herri Administrazio osoak etorkizunean bere egingo duen mekanismo batekin "esperimentatzeko eta trebatzeko aukera" emango baitie Enpresei. Beraz, helburu horrekin garatuko dira Marketinari eta Hedapenari lotutako hainbat jarduera.



3. Hedapena eta bereganatzea prestatu beharra Eusko Jaurlaritzako Sailen aldetik

Eusko Jaurlaritzaren kontratazio elektronikoaren sistema, bada, proiektu progresibo gisan definitzen da, zeren eta asmoa sisteman sartuz joatea baita, presa barik baina etengabe, kontratatzen duen gero eta elementu gehiago bereganatuz, Kontratazio Batzorde Zentraletik, Gobernuko Sailetatik eta Erakunde Autonomo eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetatik hasita.

Azpitarratzekoa da Eusko Jaurlaritzaren barruan bakarrik, kontratazio elektronikoak Administrazio barruko ehunka funtzionario eta kargudun hartu beharko duela, 100 kontratazio Mahairekin, 150 Kontratazio Organorekin eta ezin konta ahala kudeaketa organorekin –kasik dagoen Zuzendaritza eta zerbitzu kopuru bera–, zeren eta horiek guztiek kontratatzen baitute eta gainera prozedura berari jarraituz.

Kontratazio elektronikoaren giltzarrietako bat Sailek erabaki sendoz bereganatzea dela jakinik, Eusko Jaurlaritzaren egituratze eta antolaketa maila altu baten atzetik dabil, eta horretarako dago **ezarpenerako eskema**, Zerbitzuak Lehenesteko Metodologian (ZLM) ezarritako printzipioetan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzaren Digitalizatzeko Eskuliburuaren barruan, Administrazioa Modernizatzeko Bulegoan garatua, Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen akordioz 2006ko uztailaren 13an onartua.

Aipatzekoa da ezarpenerako eskema zehazteko kontuan hartu direla bereziki Zerbitzuak Lehenesteko Metodologiaren (ZLM) ebaluazio irizpide hauek:

- Digitalizatzeko eskakizunak: bereziki, erantzuteko denborari eta prozesu digitalentzako laguntza sistemaren erabilgarritasunari dagozkien eskakizun espezifikoak. Irizpide honen bidez, sistemen funtzionamenduan izan litezkeen intzidentzien aurrean zerbitzu digitaletan ondorio larriak eragin litzaketen faktore kritikoak aztertzen dira, esaterako:
 - Prozesu kritikoaren existentzia, erantzuteko denbora funtsezkoa delarik.
 - Sistemen erabilgarritasun-erreduntziaren kritikotasuna eta zerbitzuaren erabilezintasuna edo etena onartzeko aukera.
- Antolaketa eskakizunak: bereziki, zerbitzu digitala martxan jartzeko behar formatiboak. Irizpide honen bidez, Sailaren behar formatiboak baloratzen dira, zerbitzu digitala martxan jarri eta egoki funtzionatzeko zer behar den kontuan hartuta.

Horren ondorioz, honako elementu hauek nabarmentzen dira:

- 3.1. **Kontratazio Publiko Elektronikoaren egungo jardun eremuak.** Kontuan hartuta kontratazio elektronikoaren heldutasun maila, eta Eusko Jaurlaritzan azken bi urteotan izandako esperientzia zehatza, eta baita ezagutzen diren irizpideak, gaur egun, espediente tipologia hauek bereizten dira:

3.1.1. **Derrigorrez eskaintza elektronikoan sartuko diren kontratazio espedienteak.** Normalean digitalizatzeko arazorik izango ez duten espedienteak dira, honako tipologia hauetan sartzen direnak:

- Lehiaketa dela-eta zabalik.
- Publizitatearekin negoziatua.
- Publizitatearik gabe negoziatua.

Aipatu beharra dago eskaintzailea ez den beste pertsona batek sinatutako agiriren bat exijitzen den espedienteetan, agiri hori Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako Sarrera Erregistroan eskura entregatzea onartuko dela.

3.1.2. **Eskaintza elektronikorako Hautazkoak** izango diren kontratazio espedienteak. Garapen teknologikoaren egoerari dagozkion arazoak direla eta, espediente hauen artean daude gaur egunean Eskaintza Elektronikorako joera txikiagoa dutela jotzen direnak, kontratazio datu historikoetan **sarritan agertzen direlako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak**.

3.1.3. **Eskaintza Elektronikorako gaur egun ez-gaitzat** jotzen diren kontratazio espedienteak. Multzo hau honako ezaugarri hauek dituzten espedienteak osatzen dute:

- Baldintza teknikoaren plaketan, edo administrazio baldintzetan edo eskaintzen baldintza plaketan beharbada digitalizatzeko arazoak dituzten espedienteak (Bolumen edo pisu handiko fitxategi digitalak).
- Digitalizatzeko, derrigorrez aplikazio profesionalak erabiltzea eskatzen duten espedienteak, aplikazio horien formatuak Ogasun eta Herri Administrazioaren 4673. Aginduan aurreikusitakoak ez baina bestelakoak direnean.

3.2. Sailak Kontratazio Publiko Elektronikoko sartzeko faseak:

3.2.1. **1. fasea edo Abian fasea:** hasteko, Sailak proposatzen du **gaur egun eskaintza elektronikorako joera handiena duten espedienteentzako** kontratazio elektronikoa. Fase honek 6 hilabete inguru iraungo luke eta tarte horretan gaurko egunean "Eskaintza Elektronikorako gai" diren espedienteak landuko lirateke.

3.2.2. **2 fasea edo Kargaren Sendotzea:** behin hasierako esperientziaz fasea gainditu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren eta Enpresa Eskaintzaileen esperientzia handitu egingo da eta, gainera, bilakaera teknologikoak **espediente konplexuagoak lantzeko aukera emango du, hau da, gaur egun "Eskaintza Elektronikorako Hautazkoak" edo "Eskaintza Elektronikorako ez-gaitzat" jotzen direnak lantzeko aukera.**

3.3. **Eusko Jaurlaritzako Sailak Kontratazio Elektronikoko sartzeko zerrenda, kontratazio tipologiaren arabera.** Jarraian datorren koadroan azaltzen da Sail bakoitza zein data espezifikotan sartuko den fase bakoitzean:

Sallak eta Erakunde Autonomoak	Eskaintza Pilotuak	1. fasea: Abian	2. fasea: Kargaren Sendotzea	Erabat elektronikoak diren espediente tipologia berriak
Ogasun eta Herri Administrazio Saila: - Kontratazio Batzorde Zentrala - Baliabide Orokorrak	2006ko urtarrila	2007ko otsaila	2008ko martxoa	2008ko martxoa
Herrizaingo Saila	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa
Herrizaingo Sailaren gainerakoa	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa
Ertzaintza Akademia	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	2007ko otsaila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa
Osasun Saila	2007ko otsaila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa
HAEE- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea	2006ko urtarrila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa
EUSTAT- Euskal Estatistika Erakundea	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa
Lehendakariordetza	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa
Herri Lan eta Garraio Saila.	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa
Kultura Saila	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
Lehendakaritza	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
Emakunde	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
Nekazaritza, Arantxa eta Elikadura Saila	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
OSALAN – Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa
Osakidetza	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa

Modu osagarrian, hona hemen, adibide gisan, Sailak kontratazio elektronikoan sartzeko fase bakoitzari dagozkion espediente tipologia ereduak.

- **1. faseko edo Abian faseko espedienteen tipologia ereduak.** Eusko Jaurlaritzak 2003 eta 2004 ekitaldietan kontratazioaren erregistro historikoen gainean egindako azterketek adierazten dutenez, 1. fasean eskaintza elektronikorako joera handiena duten espedienteak honako tipologekin lotu litezke:
 - **Zerbitzuak** kontratatzeke espedienteak:
 - Sistema Informatikoen Ustiapena.
 - Zerbitzu Informatiko eta Telematikoak.
 - Aplikazio Informatikoen Garapena.
 - Inprimatzea.
 - Garbiketa.
 - Mediku Zerbitzua.
 - Azterketak.
 - Garbiketa.
 - Ostatuak eta Bidaiak Antolatzea.
 - Inkestak, datu bilketak eta antzeko zerbitzuak.
 - Hizkuntza ikastaroak.

- Kafetegia eta Jantokia.
 - Publizitatea.
 - Garraioa.
 - Eskola garraioa.
 - Bidaia eta Ostatuak.
 - Bidaia Agentziak.
 - Bidaiak.
 - Etab.
- **Aholkularitza** kontratatzeko espedienteak:
 - Inkestak, datu bilketak eta antzeko zerbitzuak.
 - Aholkularitza.
 - Auditoriak.
 - Bestelako Ikerketa eta Txostenak.
 - Beste Zerbitzu batzuk.
 - Ikerketa Topografikoak.
 - Ikerketa Katastralak.
 - Ikerketa eta Txosten sozialak.
 - Beste Zerbitzu Tekniko batzuk.
 - Merkataritza Ikerketak.
 - Analsiak eta saioak.
 - Ikerketak.
 - Txosten ekonomikoak.
 - Ikerketa eta Txosten Sozialak.
 - Beste Ikerketa eta Txosten Sozial batzuk.
 - Etab.
 - **Hornigaiak** kontratatzeko espedienteak:
 - Ekipamendu eta Sistema Informatikoak.
 - Software Lizentziak.
 - Ekipamendu Informatikoak.
 - Tresnak.
 - Inprimatzea.
 - Hornigai bereziak.
 - Era orotako gai suntsikorak.
 - **Mantentze lanak:** zenbait kasu espezifiko.
 - **2. faseko edo Kargaren Sendotzeko espedienteen tipologia ereduak.** Eusko Jaurilaritzak 2003 eta 2004 ekitaldietan kontratazioaren erregistro historikoen ganean egindako azterketek adierazten dutenez, 2. fasean eskaintza elektronikorako joera handiena duten espedienteak honako tipologiekin lotu litezke:
 - **1. faseko edo Abian faseko espediente guztiak.**
 - **Aldi Baterako Enpresa Elkarreak sarritan agertzen diren espedienteak:**
 - Aldi Baterako Enpresa Elkarre Homologatuei ei dagozkien Zerbitzu eta Hornigaiak.
 - Aldi Baterako Enpresa Elkarreak agertzeko joera duten espediente profilak.
 - **Agiriak digitalizatzeko-desmaterializatzeko konplexuak izan litezkeen espedienteak:**

- Eraikinak egiteari buruzko espedienteak, agiriak desmaterializatzeko arazoak izan litzaketenak, hala jatorrian (EJ) nola enpresa eskaintzaileetatik datozenean.
- Lan Espedienteak: arrazoi berberengatik.
- Lur, Aire nahiz Itsas Garraioaren azpiegitura.
- Lan Proiektuak eta Zuzendaritza.
- Publizitateari buruzko espedienteak, "Aurkezpen hesiren" bat izan dezaketenak: turismorako publizitate lehiaketa handiak, etab.



4. Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa

Kontratazio elektronikoaren sisteman sartzea erronka handia da eta ez dago hori minimizatzerik. Hori dela eta, 2003-2005erako Informatika eta Telekomunikazio Planean ezarritako ildoak jarraituz, Arreta zentro bat jartzea erabaki da, erabiltzaileei laguntza emateko: laguntza teknikoa, atzipeneko kanalen antolamendua, marketin eta hedapen prestazioak pertsonifikatu, etab.

Hedapenak planteatzen dituen premiek honako jarduera hauek gauzatzea eskatzen dute:

- 4.1. Kontratazio Publiko Elektronikoaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroa martxan jartzea, Zuzenean zerbitzuaren prestazioetan oinarrituta, eta EJI Eren mendeko Arreta zentro bat.
- 4.2. Gaur egun aurreikus daitezkeen hainbat gertaeraren aurrean Erabiltzaileei laguntza emateko, Zuzenean-en jarduera integratuaren, Arreta Zentroaren (EJIE) eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren protokoloak ezartzea.

5. Kontratisten Erregistro Ofizialak eskaini beharreko laguntza

Kontratazio elektronikoaren hedapenaren funtsezko zutabeetariko bat zera da: **Kontratisten Erregistro Ofizialaren eta gaur egun izena emana duten 3.136tik gora enpresaren** arteko aldian behingo erlazioa.

Horregatik, Kontratisten Erregistro Ofizialak ahalik eta laguntzarik handiena eman behar du honako marketing eta hedapen lanotan:

- Kontratisten Erregistro Ofizialerako inprimaki berriak egin eta erabiltzea, izena emateko eskaera egin nahi duten enpresei entregatzeko.
- Kontratazio Publiko Elektronikoa bistaratzea, panelen eta elementu seinaletikoen bitartez.
- Kontratazio elektronikoaren erakusmahaira inguratzen diren enpresei, bertan parte hartzera bultzatzeko agiri sorta bat aurkeztea eta eskura ematea.
- Posta komunikazio edo jakinarazpen bakoitzarekin batera, Kontratazio Publiko Elektronikoa parte hartzera bultzatzeko agiri sorta bat bidaltzea.
- Gestioak egitea enpresek Kontratazio Elektronikokoaren Erregistroan izena eman dezaten.



6. Prestakuntza Kontratazio Elektronikoa

Kontratazio elektronikorako aurreikusten diren mekanismo digitaletako asko berriak izango dira bai Enpresa eskaintzaileentzat eta bai Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren inguruko prozesuan esku hartzen duten Funtzionario eta Agintarientzat.

Hori dela eta, kontratazio elektronikoa hedatzeko, interes handiko ezagutza eta trebetasun multzo esanguratsu bat garatu nahi da bai kontratazioaren bai e-Administrazioaren testuinguruan, non honako elementu hauek hartuko diren kontuan:

- Formatu dokumental digitalak ezagutu eta erabiltzen jakitea.
- Izenperen identifikazio eta egiaztatze zerbitzuak erabili ahal izateko oinarriko prestakuntza.
- Eskaintza Elektronikoen aplikazioa erabiltzen jakitea (P90B).
- Digitalizatzeko jarduera onak.
- Administrazio eta Gobernu Elektronikoei buruzko prestakuntza plana, Administrazioa Modernizatzeko Bulegoak aurreikusia.
- Kontratazio Publiko Elektronikoen Vademecum tekniko-legezkoari buruzko prestakuntza.
- Eskaintza elektronikoa (P90A) enpresaren ikuspuntutik bistaratzea.
- Eskaintza elektronikoa (P90B) barne erabiltzaileen ikuspuntutik bistaratzea.
- Kontratazio Espedienteen Kudeaketa egiteko Aplikaziorako sarrera (L-29).
- Kalitate konpromisoaren norainokoa Zerbitzua eskaintzean.

Honenbestez, bada, honako lanildoak jorratu beharra dago:

- 6.1. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (HAEE) kontratazio elektronikoko Prestakuntza egiaztatze lanak aktibatzea.
- 6.2. Enpresentzako prestakuntza aktibatzea.
- 6.3. Eusko Jaurlaritzako langileentzako prestakuntza aktibatzea.



7. Digitalki igorritako eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea Bermatzeko prozedura

Eusko Jaurlaritzak ohartuta dago "aurkezpenak hesi eragina" izan lezakeela eta horrek oztopatu egin lezakeela, zenbait espediente tipologiari dagokionez, Enpresetan eskaintza elektronikoa sartzeko prozesua.

Hori dela eta, hala egitea eskatzen duten espedienteetarako, eta edozein bereizkeria ekiditeko, beharrezkotzat jotzen da Eskaintzak Inprimatzean Kalitate Konpromiso bat garatzea, honako kontuak bilduko dituena:

- Inprimatze bermea.
- Inprimatze osoa eta kalitatekoa.
- **Karpetaratze homogoneoa eskaintza guztientzat**, hala euskarri digitalean jasotakoentzat nola paper euskarrikoentzat.

Horretarako, eskaintzak Inprimatzeko Kalitatean Segurtatze Prozedura bat zehaztu da, Baliabide Orokorretako Zuzendaritzako Inprimatze eta Erreprografia Zerbitzuak eta Kontratazio Elektronikoaren Sistemaren arduradunek adostua, eta aktibatu beharra dagoena. Prozedura honetan datza:

- 7.1. Behin eskaintzak publikoki ireki ostean, egokitu egingo dira Inprimatze eta Erreprografia Zerbitzuak jasotako fitxategietara sarbidea izan dezan, Eskaintza Elektronikoaren Aplikazioaren bidez.
- 7.2. Eskaintzak inprimatu eta prestatu egingo dira, lehen aipatu dugun Eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea bermatzeko Konpromisoak dioenari jarraiki.
- 7.3. Azkenik, eskaintza guztiak Kontratazio Mahaiko Idazkariari bidaliko zaizkio.

Hori guztia hala izan dadin, Baliabide Orokorretako Zuzendaritzako Inprimatze eta Erreprografia Zerbitzuak Kontratazio Publiko Elektronikoaren Planean aurreikusten den Inprimatze Teknikari Laguntzailearen laguntza izango du.



8. Eusko Jaurlaritzako Sailak Kontratazio Publiko Elektronikoa sartzeko eskakizunak

Kontratazio elektronikoaren Planari dagokionez, arrakastaren giltzarrietako bat Sailek eta bertako kontratazio mahaietako arduradunek bereganatzea izango da.

Kontua ez da, beraz, eskaintza elektronikoan esperimentazio bat garatzea bakarrik, baizik eta **Sailen eskema egituratu bat eskaintzea; eta horretarako, konpromiso bat garatu beharra dago, honako lanetara iritsiko den konpromiso bat:**

- 8.1. Kontratazio Publiko Elektronikoa Planari buruzko Prestakuntza Programan parte hartzea.
- 8.2. Kontratazio espedienteak kudeatzeko aplikazioa da kontratazio elektronikoaren sistemaren aplikazio nagusia, zeren aplikazio horretatik elikatzen baitira gainerako aplikazio gehienak eta aplikazio horrek markatzen baitu kontratazio denbora; hori dela eta, gomendatzen dena da Eskaintza Elektronikoa hartzeko 1. fasea (Abian) hasi eta 6 hilabeteko epean, Sailek kontratazio espedienteen kudeatzaile bat izatea beharrezko zereginak automatizatzeko.
- 8.3. Kontratazio elektronikoari laguntzeko sistemen arkitektura osatzen duten aplikazioak abiaraztea, berezi-bereziki hauei dagozkienak:
 - Sinadura Elektronikoa.
 - **Jakinarazpen Elektronikoa (P-91)**. Jakinarazpen Elektronikoa (P-91) beharrezkoa da, administrazio digitaleko prestazioetan jauzi kualitatibo esanguratsuak egitea dakarrelako. Gainera, Administrazio-Enpresa eskaintzaile erlazioa digitalizatzeko garrantzi handiko elementua da kontratazio ziklo osoan zehar.
- 8.4. Kontratazioaren gehienezko egintzak elektronikoki betetzea:
 - Kontratazio Espedientearen Kudeaketa Aplikazioaren bidez, Espediente bat aktibatu.
 - Kontratazio Publiko Elektronikoa Mahaia formalizatu.
 - Eskaintzak aurkeztu.
 - Dokumentazioa ireki.
 - Jakinarazpen elektronikoak.
 - Dokumentazioa zuzendu.
 - Pleguak irekitzeko Ekitaldirako sarbide birtuala.
 - Adjudikazioa – Argitaratzea – Jakinarazpena.
 - Kontratua sinatu.

- 8.5. Sailak kontratazio elektronikoen sisteman sartzeko 1. fasean zehar, eta espedientea onartu baino gutxienez 15 egun lehenago, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzakoei jakinarazi behar zaie eskaintza elektronikorako proposak izan daitezkeen espedienteak plazaratuko direla.
- 8.6. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak garatutako karatula, Administrazio Baldintza Partikular eta Oinarri Teknikoen Plegu eredu berriak erabili. Horietan, enpresetan eskaintza elektronikoen erabilera bultzatzeko elementuak daude.
- 8.7. Enpresa eskaintzaileek eskaintza elektronikoa bereganatzeko mekanismoak bultzatzen lagundu, honen bitartez:
- Zabalkunde azkarrerako Jarduera Profil aproposak bilatzea.
 - Kontratazio Publiko Elektronikoa abiarazten lider diren enpresa traktoreak hautatzea, dauden kontratazio espediente tipologien arabera.
 - Eusko Jaurlaritzak historikoki izan dituen aurrez aurreko hornitzaileak arrakastatsuenek eskaintza elektronikoa bereganatzeko konpromisoa hartzeko sustapena egitea.
 - Enpresa hornitzaileetako pertsona teknikoaren eta Herri Administrazioako langileen arteko harremanak lantzea, eskaintza elektronikoa zabaltze aldera.
- 8.8. Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren “Kontratazio Publiko Elektronikoen Kit-a” erabiltzeko eskaera egitea edo bitarteko propioak eskuratzea. Esan beharra dago gaur egun “Kontratazio Publiko Elektronikoen Kit-ea” honako elementu hauek guztiak sartzen direla:
- **Software eta hardware elementuak:**
 - Mahiko Idazkariarentzako ordenagailu pertsonala, izapidetze lanak egiteko.
 - Eskaintza Elektronikoak eskatzen dituen funtzioak betetzeko PCa. Ahal dela, PC horrek honako elementu hauek izan behar ditu:
 - Txartel Elektronikoei erantsitako Irakurgailua.
 - Interneterako sarbidea.
 - EJIEn (Eusko Jaurlaritzaren) XLNETSerako sarbidea.
 - Izenpe Txartelen Irakurgailua, baldin eta PCak teklaturik ez badakar.
 - Izenpe softwarea.
 - **Galkuntzak eta baimenak:** Saileko Mahai bakoitzeko partaideek honako baimenak izan behar dituzte:
 - Izenpe txartelak, e-Eskaintza aplikazioak aurreikusitako horizontearen arabera balioa dutenak, Kontratazio Mahaiko ohiko partaideentzat.
 - Eskaintza Elektronikoaren Aplikazioa erabiltzeko baimen administratiboa (P-90b).
 - Jakinarazpen Elektronikoaren Aplikazioa erabiltzeko baimen administratiboa (P-91).
 - Erregistro Telematikoen Aplikazioa erabiltzeko baimen administratiboa.
 - Kontratisten Erregistroaren Aplikazioan (M-60) sartzeko baimena, Kontratisten Erregistroko egiaztagirak irakurri ahal izateko.

- Ikus-entzunezko Softwarea eta Hardwarea, irudiak eta soinua hartzeko, pleguak irekitzeko ekitaldia WebCam bidez emateko.
 - Oinarrizko Softwarea, eskaintzak digitalizatzeko onartuta dauden formatu dokumentalak bistaratu eta inprimatzeko: Word (.doc), Excel (.xls), Power-Point (.ppt), Adobe Acrobat (.pdf), .rtf, .swx, .abw, .bmp, .tiff, .Winzip (zip) eta .7z.
 - Hala nahi dutenentzat, Kontratazio Espedienteak Kudeatzeko Aplikaziorako sarbidea (L-29).
 - Pleguak eta gainerako elementu garrantzizkoak argitaratu eta eskuragarri jartzea, "Euskadi.net-en" "contratación.info" gunearen bitartez.
- **Irekiera ekitaldiak garatzeko bitarteko teknikoak.** Beharrezko bitartekoak dituen areto espezifiko bat atondu da irekiera ekitaldiak egiteko. Mahaia irekiera ekitaldiak bere bitarte propioekin egin nahi izanez gero, hauxe beharko litzateke:
 - Teklatu harigabea, euren txartel elektronikoa erabili behar duten mahai kideei ematea samurtzeko.
 - Txartel Elektronikoei erantsitako Irakurgailua.
 - Internetera sarbidea.
 - EJI Eren (Eusko Jaurjaritza) XLNETSerako sarbidea.
 - Izenpe Txartelen Irakurgailua, baldin eta PCak teklatuan ez badakar.
 - Izenpe Softwarea.
 - Ikus-entzunezko Softwarea eta Hardwarea, irudiak eta soinua hartzeko, pleguak irekitzeko ekitaldia WebCam bidez emateko.

8.9. Laguntza behar izanez gero, Informatikako Teknikari Laguntzaileari eskatu, horixe du-eta aurreikusia Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak kontratazio mahaiei laguntza emateko.

8.10. Eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea Ziurtatzeko prozedura betetzea 7. puntuari deskribatu dugu. Saileko Kontratazio Mahaia arduraz izango da, Inprimatze eta Erreprografia Zerbitzuarekin eta Inprimatze Teknikari Laguntzailearekin lankidetzan –Ondare eta Kontratazio zuzendaritzak aurreikusia–, eskaintzak Inprimatzeko Kalitatea Ziurtatzeko prozedura betetzea.

8.11. Eskaintza elektronikorik egin gabeko enpresei egindako jakinarazpen guztietan, kontratazio elektronikoaren sistemari buruzko agiri informatiboak igortzea. Eusko Jaurjaritzaren hornitzaileak kontratazio elektronikoan trebatzeak duen garrantzi estrategikoa hain da handia, non Gobernu honek konpromiso sendoa hartu baitu kontrataziorako mekanismo digitalak eskuratu beharrez enpresak sentiberatzeko. Hala, jakinarazpen ekitaldien barruan, Sailetako Kontratazio Mahaiek karpeta bat gehituko diote dokumentazio administratiboari, eskaintza elektronikoa egiteko bitartekorik sekula erabili gabeko enpresak sentiberatzeko asmoz.

8.12. Kontratazio elektronikoan etengabe hobetuz joateko lankidetzak, hobetzeko iradokizunak eginez, hala antolaketa esparruan nola esparru teknikoan.

9. Eusko Jaurlaritzaren kontratazio espedienteei buruzko datuen ustiapen estatistikoa, Kontratazio Publiko Elektronikoaren ezarpenari jarraipena egiteko adierazleak garatzeko helburuz

Eusko Jaurlaritzak adierazle multzo txiki bat garatzea aurreikusi du, Kontratazio Publiko Elektronikoaren ezarpenean egindako aurrerapena monitorizatzeko helburuz.

Horretarako, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren kontratazio espedienteei buruzko datuen aldizkako ustiapen estatistikoa egingo du, Kontratazio Publiko Elektronikoaren ezarpenari jarraipena egiteko adierazleak garatzeko.

E-Kontratazioaren ezarpenari egin beharreko jarraipena eta ebaluazioa, beraz, Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Planean (AGEP) integratuko da, izan ere, e-Kontratazio proiektua horren barruan dago.

Horretarako, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari agintzen zaio sei hilabetean behin Administrazioa Modernizatzeko Bulegoko Zuzendaritzari helburuen betetze mailaren gaineko informazioa emateko; eta baita Akordio honen gainerako ataletan azaldutakoaren betetze mailaz informazioa emateko ere.

10. Kontratazio elektronikoaren aplikazioen bilakaera teknologikoari eman beharreko bultzada

Eusko Jaurlaritzaren kontratazio elektronikoaren ezaugarri bat proiektu progresiboa izatea da, eta komenigarria irizten zaio oinarritzko gutxieneko batzuetatik abiatzea, gero garapen maila garaia goetara iristeko.

Hala, 2004 eta 2005 urteetako jardun praktikoak, eta baita ezarpenari dagokion garapen metodologikoa kontuan izanda ere, agerian geratu da prestazio berriak hedatzea komeni dela, egindako aurrerapenak osatzeko.

Modu osagarrian, Administrazio Digital eta Gobernu Elektronikorako Plan Estrategikoa osatzen duten aplikazioetan egindako aurrerapenak, gainera, modulu eta prestazio komunak aprobetxatzea ahalbidetzen du, eta hala, kontratazio elektronikoaren bilakaera teknologikoari mesede handia egin dakioke eta aipatutako modulu komunak modu eraginkorrean erabiltzea bultzatu daiteke.

Honenbestez, kontratazio elektronikorako komenigarria da honako neurri hauek hartzea:

10.1. Antolaketa arloan zein teknika arloan garapenak bultzatzea. Garapen horiek Eusko Jaurlaritzan aplikagarritasun horizontala izango dutenez, Kontratazio Publiko Elektronikoaren aurrerapen funtsezkoel eutsi ahal izango diete. Horien artean hauek azpimarra ditzakegu:

- **Jakinarazpen Elektronikoari izendapen zehatza jarri, Enpresa eskaintzalleek jasotako komunikazio elektronikoaren artean argi identifikatzea ahalbidetuko duena.**
- **Formatu digitaleko Bermeak aurkezteko aukera eman.** Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da Finantza Etxeekin lankidetzan aritzea, barneko koordinazio mekanismoak aktibatzea eta baita e-Administrazio Arkitektura Orokorren hainbat elementu martxan jartzea ere (beste administrazio batzuekin eta Nire Ordainketak delakoarekin Informazioa Trukatze Modulu), hala, ahalik eta epe laburrenean, bermeak mekanismo telematikoen bidez aurkeztu ahal izateko.

10.2. Eusko Jaurlaritzaren e-Administrazio azplegitura komunak aprobetxatu, Kontratazio Publiko Elektronikoaren mesedetan. Gai honi dagokionez, zera aholkatzen da:

- Jakinarazpen Elektronikoari buruzko modulu Kontratazio Publiko Elektronikoaren esparru gehiagotan sartzea.
- Norabide biko konexioa garatzea, Eskaintza Aplikazioan, Jakinarazpen Elektronikoan, Kontratisten Erregistro Ofizialean eta Kontratazio Espedienteak Kudeatzeko Aplikazioan.

- "Nire Ordainketak" eskuratzea, aldizkari ofizialetako iragarkien argitalpen kostuak elektronikoki ordaintzeko.
- "Beste Administrazio batzuekin Informazioa Trukatze Modulu" eskuratzea, Kontratisten Erregistro Ofizialera zuzendutako informazioak igortzeko elementu lagungarri gisan.
- Enpresei eskatzen zaizkien banku nahiz administrazio txostenak, gaitasuna dutela egiaztatzen dutenak, digitalizatzea.
- Kontratuen Erregistro Publiko Elektronikoa garatzea, e-Administrazio Arkitekturan aurreikusitako artxibatze sistema elektronikoa oinarrituz.

10.3. Kontratazio Publiko Elektronikoa osatzen duten aplikazioen bilakaera teknologikoa bultzatzea; elementu funtsezko hauek nabarmenduz:

10.3.1. Kontratisten eta Enpresa Sailkapenaren Erregistro Ofizialari buruzko aplikazioaren bilakaera teknologikoa:

- Kontratazio Publiko Elektronikoa Aldi Baterako Enpresa Elkarrekin parte hartzea ahalbidetuko duten soluzio teknikoak garatzea.
- "Beste Administrazio batzuekin Informazioa Trukatze Modulu" eskuratzea, Kontratisten Erregistro Ofizialera zuzendutako informazioak igortzeko elementu lagungarri gisan.
- Kontratisten eta Enpresa Sailkapenaren Erregistro Ofizialak egindako ziurtagiriak digitalizatzea.
- Erregistratutako erakundeek komunikaziorako funtzionalitateak hedatzea (jakinarazpen elektronikoa, inskripzio telematikoa...), interesdunek komunikatzeko izapideak elektronikoki egiteko aukera izan dezaten.

10.3.2. Kontratazio Espedienteak Kudeatzeko Aplikazioa (L-29):

- lizenziatutako ziurtagiri digitalaren prestazioekin integratzea, eta modu zehatzean artikulatzea identifikazio eta ziurtapen digitalari dagozkion funtzioak eta espedienteak kudeatzeko prozesuari dagozkionak.
- Aurrekontu eta Kontabilitate Aplikazioarekin (IKUS) integratzea.

10.3.3. Eskaintza Elektronikoaren Aplikazioa:

- Zuzenketa Modulu garatzea.
- Prozedura negoziatua eguneratzea.
- Europar Batasunak eta Estatuak aurreikusitako kontratazio elektronikoko modalitate berrietara arlo teknologiko zein operatiboan moldatzea. Eusko Jaurlaritzak aurrera egiteko erabaki sendoa hartua du Europar Batzordearen zuzentarauen transposizioan, eta horrela, epe ertainera eta garapen normatiboek uzten duten neurrian, kontratazio elektronikoko modalitate berriei ekin, hain zuzen ere, Europar Batasunak aurreikusitako eta sektore publikoko kontratazioari buruzko legediak aurreikusten dituen modalitate berri hauei ekin:
 - Errosten sistema dinamikoak.
 - Elkarriketa lehiakorra.
 - Enkante elektronikoa.

- 10.4. Bilakaera teknologikoa digitalizate-desmaterializazioan, formatu digital berriak eskuratuz.** Aurki plazaratzekoak diren formatu dokumentalak eskuratuta, gaur egun sarean digitalizate edo garraio arazoak izan litzaketen espedienteak tratatzeko aukera izango dugulakoan gaude.

11. Erakunde-arteke Lankidetzaren eta kontratazio elektronikoa beste Administrazio batzuetara transferitzeko aukera

Hasiera-hasieratik, "interes orokorreko sistema edo aplikazioak" egotea komeni dela zehazten duten nazioarteko joeren ildotik, eta sistema edo aplikazio horiek beste Administrazio batzuetarako interesa izan dezaketen funtzioak garatzeko aukera emango dutelakoan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak kontratazio elektronikoa buruzko ezagutza transferigarritasuna ezarri zuen, zera adieraziz:

- Kontratazio elektronikoa modu progresiboan bereganatuko da, presa barik baina etengabe, **sisteman** gero eta kontratatzen duen elementu gehiago **sartuz**, Kontratazio Batzorde Zentraletik, **Gobernuko Salletatik eta Erakunde Autonomo eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetatik** hasita, **hala egin nahi duten Foru nahiz Tokiko Administrazioak ahaztu barik.**
- Halaber, **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko gainerako Sailek ere erabili ahal izango dute, eta baita horien erakunde autonomoek eta euren borondatez erabili nahi duten zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ere**, Sail interesdunaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren agindu bateratuaren bitartez.
- Udaletxe eta Aldundiekin egindako Administrazio-arteke Foroan aurreikusitako jardueren bitartez, **kontratazio elektronikoen sistemako aplikazio guztiak eta, bereziki, Eskaintza Elektronikoaren aplikazioa, eta baita Kontratisten Erregistro Ofizialerako sarbidea, administrazio maila guztiei eskainiko zaizkie euren borondatez bereganatzeko.**

Horiek hala, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da kontratazio elektronikoa euren borondatez bereganatu nahi duten Euskadiko Autonomia Erkidegoko Foru eta Tokiko Administrazioekin lankidetzan aritzea, kontratazio elektronikoen sistemarako dauden giza baliabide eta baliabide tekniko eskuragarriak balliatuz, behar besteko ordezkaritasuna izango duten ezarpenak garatzeko ahaleginean.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak nahi du Administrazio-arteke Foroa izatea Euskadiko Herri Administrazioen beste esparru batzuetan kontratazio elektronikoa zabaldu eta garatzeko giltzarrietako bat, aipatutako Foro hori Euskadin Administrazio Digitalaren aurrerapena eta garapena koordinatzeko erakunde-arteke lankidetzaren espazioa den aldetik.



12. Kontratazio Publiko Elektronikoaren bilakaera Normatibo eta Legezkoa

Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publiko Elektronikoaren legezko egitura duela oso gutxi sortutakoa da, eta oinarrian dagoena da Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2004ko abuztuaren 16ko 4673. Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuarena, Herri Administrazioetako kontratuei buruzko legerian aurreikusitako prozedura eta jardura jakin batzuen izapidetze telematikoaren gainekoa.

Agerikoa da garapen tekniko orokorrak, benetako ezarpenak egitean metatutako esperientzia, eta Estatuan nahiz Europar Batasunean legeek izandako bilakaera bera kontuan hartuta, komenigarria dela etorkizuneko Bilakaera Normatibo eta Legezkoari bultzada ematea, besteak beste, elementu hauek kontuan hartuz:

- **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko etorkizuneko Legea egokitzea.**
- **Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoa arautzea.**
- **Europar Batasunak aurreikusten dituen Kontratazio Publiko Elektronikoaren modalitate berriei eusteko garapen normatiboa.**
- **Administrazio Publikoetako kontratuen legedian aurreikusten diren prozedura eta jardura jakin batzuk telematikoki izapidetzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Araudia honako hauek egokitzea:**
 - Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Modernizatzeko Bulegoaren Zuzendaritzak kontsultarako zirriborro fasean duen Izapidetze Telematikoari buruzko araudira.
 - Kontratazio Publiko Elektronikoaren ezarpenean egindako eskaintzek ekarritako esperientzia zehatzetara.



13. Konpromiso egutegien laburpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalean eKontratazio Proiektuaren Gida Plana ezartzeko Gobernu Kontseiluak onartutako akordioaren ondorioz hartutakoa

Sallak eta Erakunde Autonomoak	Eskaintza Pilotuak	1. fasea: Abian	2. fasea: Kargaren Sendotzea	Erabat elektronikoa diren espediente tipologia berriak	Kontratazioan Jakinarazpen Elektronikoa abiarazi	Kontratazio Elektronikoaren Erregistro Telematikoa erabili	Ezarritako Espediente Kudeatzailea	Konsulten Zerbitzua Espedienteen Kudeatzailearekin lotu	Eskaintzen publizitatea honako hauetan: www.contratacion.info y www.euskadi.net/contratacion	Sinadura Elektroniko Aitortua erabili
Ogasun eta Herri Administrazio Saila: - Kontratazio Batzorde Zentrala - Baliabide Orokorrak	2006ko urtarrila	2007ko otsaila	2008ko martxoa	2008ko martxoa	2007ko otsaila	2007ko otsaila	L-29 Kudeatzailea ezarrita	Erabilgarria	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Herrizaingo Saila	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa	2007ko martxoa	2007ko martxoa	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Herrizaingo Sailaren gainerakoa	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa	2007ko martxoa	2007ko martxoa	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Ertzaintza Akademia	2006ko iraila	2007ko martxoa	2008ko martxoa	2008ko martxoa	2007ko martxoa	2007ko martxoa	L-29 Kudeatzailea ezarrita	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	2007ko otsaila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa	2007ko apirila	2007ko apirila	L-29 Kudeatzailea ezarrita	Erabilgarria	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Osasun Saila	2007ko otsaila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa	2007ko apirila	2007ko apirila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
HAAE- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea	2006ko urtarrila	2007ko apirila	2008ko apirila	2008ko martxoa	2007ko apirila	2007ko apirila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
EUSTAT- Euskal Estatistika Erakundea	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa	2007ko maiatza	2007ko maiatza	2006ko azaroa	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki

Lehendakariordetza	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa	2007ko maiatza	2007ko maiatza	L-29 Kudeatzailea ezarrita	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila	2006ko iraila	2007ko maiatza	2008ko maiatza	2008ko martxoa	2007ko maiatza	2007ko maiatza	L-29 Kudeatzailea ezarrita	Erabilgarria	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Herri Lan eta Garraio Saila	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa	2007ko ekaina	2007ko ekaina	L-29 Kudeatzailea ezarrita	Erabilgarria	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa	2007ko ekaina	2007ko ekaina	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Kultura Saila	2007ko otsaila	2007ko ekaina	2008ko ekaina	2008ko martxoa	2007ko ekaina	2007ko ekaina	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Lehendakaritza	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Emakunde	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	Kudeatzaile propioa ezarrita	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Nekazaritza, Arantza eta Elikadura Saila	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	2006ko iraila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
HABE – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	2007ko ekaina	2007ko ekaina	Erabilgarria	Mailaz maila eta progresiboki
Osakidetza	2007ko otsaila	2007ko uztaila	2008ko uztaila	2008ko martxoa	2007ko uztaila	2007ko uztaila	Kudeatzaile propioa ezarrita	2007ko abendua	www.euskadi.net –en bilakaeraren mende	Mailaz maila eta progresiboki